Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

"SANTIAGOMENDI NATUR ESKOLA – ATERPEA" KUDEATZEKO LEHIAKETA IREKIA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- LEHIAKETAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen xedea da Santiagomendi aterpetxearen erreserbak eta erabilera kudeatzeko, mantentzeko eta garbitzeko zerbitzuak emateko baldintza teknikoak finkatzea, bai eta ingurumenean jarduera naturalak antolatzeko zerbitzuarena ere.

1.- OBJETO DEL CONCURSO

El presente pliego tiene por objeto establecer las condiciones técnicas para los servicios de gestión de reservas, utilización, mantenimiento, y limpieza del albergue Santiagomendi, así como el servicio de organización de actividades naturales en el medio ambiente.

2.- HELBURUAK

Santiagomendiko aterpeak, besteak beste, natur eskola eta turismo ekipamendu gisako zerbitzua eskaini behar du eta gaur arte bertan eskaini ez diren beste erabilera edo zerbitzu batzuk eskaintzeko Udalaren baimena izan behar da.

Natur eskola zerbitzuak ingurumeneko sentsibilizazio eta heziketa-funtzioa du eta jarduera eta bitarteko ezberdinen bidez ondoko helburuak ditu:

- Nekazaritza tradizionala zein ekologikoa ezagutaraztea eta honi lotutako baserria eraikin moduan ezagutaraztea Euskal Herriko eta Astigarragako kulturan izan duen eragina baloratzeko.

- Ingurumen eta kontsumo iraunkorrari buruzko oinarriak eskaintzea.

- Energia efizientziarako oinarriak eskaintzea, energia berriztagarrien aukeran sakontzea eta energiaren kontsumo arduratsurako ohitura sortzea.

2.- OBJETIVOS

El albergue de Santiagomendi debe ofrecer, entre otros, el servicio de escuela de medio ambiente y equipamiento turístico, debiendo contar con la autorización municipal para la ofrecer otros usos o servicios que hasta la fecha no se han venido dando.

El servicio de Natur Eskola cumple una función de sensibilización ambiental y educativa, y a través de diferentes actividades y medios, persigue los siguientes objetivos:

- Divulgar y valorar la agricultura tradicional y ecológica, y dar a conocer el caserío asociado como edificio para valorar su impacto en la cultura de Euskal Herria y Astigarraga.

- Ofrecer los principios sobre el medio ambiente y el consumo sostenible.

- Ofrecer los principios sobre la eficiencia energética, profundizar en las alternativas de las energías renovables y crear hábitos responsables en el consumo de energía.

- Astigarragako natura, biodibertsitatea, historia eta historia aurreko kultur ondarea ezagutzera ematea.

- Natura eta Artea batuz, ingurumenean, sormen ekintzak eskeintzea.

Zehaztutako aurreko helburuez gain, aterpeak turismo ekipamendu baten funtzioa ere izango du, baina bilera, jardunaldi, ikastaro edo aisiarekin loturiko beste batzuetarako ere aloka liteke.

Ahaztu gabe, aterpea Santiago ermitari itsatsita eta Donejakue bidean egonik, ekipamenduak bideari loturiko ekipamendu bat gehiago izan behar duela eta erromesek aterpea erabiltzeko baldintza bereziak izango dituztela. Gainera erromesek aterpea erabiltzeko lehentasuna izango dute.

Aterpearen heziketa funtzioa besteak beste, Lehen Hezkuntzara (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara (DBH) zabalduko da.

3.- LANEN EZAUGARRIAK: GARATU BEHARREKO EKINTZAK

Enpresa esleipendunak natur eskolaren eta aterpearen alokairuari dagokion kudeaketa osoaz arduratuko da, hau da, bertan eskainiko diren zerbitzuei eta instalazioei loturikoa:

A) ERRESERBEN KUDEAKETA ETA DIRU-BILKETA.

- Dar a conocer la naturaleza, la biodiversidad y el patrimonio cultural histórico y prehistórico de Astigarraga.

- Ofrecer acciones creativas en el medio ambiente mediante la fusión de Naturaleza y Arte.

Además de los objetivos anteriormente citados, el albergue cumplirá la función de equipamiento turístico, pero puede ser alquilado para llevar a cabo reuniones, jornadas, cursos u otras actividades relacionadas con el ocio.

Asimismo, no hay que olvidar que el albergue se encuentra dentro del Camino de Santiago y que está adosado a la ermita del mismo nombre; por ello este equipamiento deberá ser uno más en el Camino, y los/as peregrinos/as dispondrán de condiciones especiales para el uso del albergue. Los/as peregrinos/as tendrán prioridad a la hora de utilizar el albergue.

La función educativa del albergue se extenderá, entre otros, a la Educación Primaria (EP) y Educación Secundaria Obligatoria (ESO).

3.- CARACTERÍSTICAS DE LOS TRABAJOS: TAREAS A DESARROLLAR

La empresa adjudicataria se responsabilizará de la gestión global correspondiente al alquiler del albergue y de la Natur Eskola, es decir, de aquellas cuestiones relacionadas con los servicios y las instalaciones:

A) GESTIÓN DE RESERVAS Y RECAUDACIÓN.

Esleipendunaren esku geratzen da erreserben eta instalazioen erabileraren kudeaketa, fidantzen izapidetzea barne, baina kontratu honen kudeaketaren ondorioz jasotako diru-sarrerak Udalaren titulartasunekoak dira.

Hala ere, esleipendunak diru-sarrera horiek bilduko ditu, eta, beraz, bere kargura geratuko da eskola naturalaren, aterpetxearen edo eman daitekeen beste edozein zerbitzuren alokairuari dagozkion ordainketak kobratzea, eta, hilabete bakoitzaren amaieran, bildutako diru-sarreren likidazioa aurkeztu beharko du, udalak eskatzen dizkion datuekin, eta dagokion transferentzia egin beharko du Udalari.

Prezio publikoak direnez, Udalak urtero onartzen duen ordenantzan finkatuko dira zenbatekoak, eta onartzen denean horren berri emango dio esleipendunari.

B) NATUR ESKOLA ETA INGURUMEN HEZIKETA

Eslipendunak natur jardueren eskaintza bat egin beharko du, hau da, erabiltzaile desberdinei zuzenduriko egonaldi paketeak proposatzea.

Natur eskolaren kudeaketari loturiko ekimenei dagokionean, urtez urte, iraileko lehen asterako esleipendunak aurkeztu beharko du zerbitzuen pasa den ikasturteko ebaluaketaren txosten orokorra eta datorren ikasturtean garatzeko asmoa duen ekimenei buruzko memoria, udalak onartua izan dadin.

Queda en manos de la adjudicataria la gestión de las reservas y del uso de las instalaciones, incluida la tramitación de las fianzas, si bien, los ingresos percibidos como consecuencia de la gestión de este contrato son de titularidad del Ayuntamiento.

No obstante, la adjudicataria actuará como recaudadora de dichos ingresos, de tal forma que queda a su cargo el cobro de los pagos correspondientes al alquiler de la Escuela Natural, Albergue o cualquier otro servicio que pudieran prestarse, teniendo la obligación de presentar, a final de cada mes, la liquidación de los ingresos recaudados, con los datos que le requiera el Ayuntamiento, y realizar la transferencia correspondiente al Ayuntamiento.

Al tratarse de precios públicos, los importes serán fijados en la ordenanza que anualmente apruebe el Ayuntamiento, y cuando se apruebe dará cuenta de ello a la adjudicataria.

B) NATUR ESKOLA Y EDUCACIÓN AMBIENTAL

Será obligación del adjudicatario/a, elaborar una oferta de actividades en la naturaleza, de manera que pueda proponer paquetes de estancias para distintos públicos.

En lo que respecta a las iniciativas relacionadas con la gestión de la Natur Eskola, la persona adjudicataria deberá presentar la primera semana de septiembre informe general de evaluación de los servicios del curso anterior y las iniciativas previstas a desarrollar en el curso siguiente, a fin de que sea aprobada por el Ayuntamiento.

C) PUBLIZITATEA

Esleipendunari dagokio Santiagomendiko aterpetxean eskainitako zerbitzu guztien publizitate materiala sortzea.

Era berean, esleipendunari dagokio www.santiagomendi.com web orrian dauden edukiaren mantentzea.

C) PUBLICIDAD

Corresponde a la persona adjudicataria la preparación de todo material publicitario correspondiente a los servicios prestados en el albergue Santiagomendi.

Asimismo, corresponde a la persona adjudicataria el mantenimiento de los contenidos de la página web www.santiagomendi.com.

D) INSTALAZIOEN GARBIKETA

Esleipenduna izango da Santiagomendiko aterpetxeko instalazio guztien garbiketaren erantzule. Garbiketa erabiltzaileei gutxien molestatzen dien ordutegian egingo da.

Helburu horrekin, erabilera izan duten instalazio guztiak egunean behin gutxienez garbituko dira. Jarraian egun batzuetan erabili ez diren instalazioak, gutxienez astean behin garbituak izango dira. Garbiketa kanpoko komunean ere egin behar da.

Era berean, ezustekorik suertatzen denean, segituan ekingo zaio garbiketari.

D) LIMPIEZA DE INSTALACIONES

La persona adjudicataria será la responsable de la limpieza de todas las instalaciones del albergue Santiagomendi. La limpieza se realizará en horario que menos moleste a los/as usuarios/as.

A tal fin se limpiará diariamente todas las instalaciones que han tenido uso. Las instalaciones que no han sido usadas durante varios dÍas consecutivos serán limpiados al menos semanalmente. Se deberá limpiar también el aseo exterior.

Asimismo, se procederá a la inmediata limpieza en casos sobrevenidos.

E) ERAIKUNTZAREN ETA INSTALAZIOEN MANTENTZEA

Udalak, eraikinaz gain, aterpetxean dauden altzariak eta tresnak (sukaldekoak, bainugelakoak...) jarriko ditu esleipendunaren eskura. Kontratua sinatu ondoren, esleipendunarekin batera, haien inbentario bat egingo da (lizitatzaielak soilik jakin dezan zer altzari eta tresna mota jarriko diren bere esku, baldintza-agiri honen I. eranskin gisa, aurreko lizitaziorako 2021eko ekainaren 14an egindako inbentarioa

E) MANTENIMIENTO DEL EDIFICIO Y DE LAS INSTALACIONES

El Ayuntamiento pondrá a disposición de la adjudicataria además del edificio, el mobiliario y enseres (cocina, baño…) existentes en el albergue. Tras la firma del contrato, junto a la adjudicataria, se elaborará un inventario de los mismos (para los únicos efectos de la la adjudicataria conozca el tipo de mobiliario y enseres que el ayuntamiento pondrá a su disposición, se publica como anexo I de este pliego

argitaratzen da).

Lizitatzaileek aukera izango dute instalazioak ikusteko. Horretarako eskaera udaleko ingurumen sailari egin beharko zaio, lizitazioa argiratu eta bost (5) eguneko epean, helbide elektroniko hauetan: ingurugiro@astigarraga.eus; hirigintza@astigarraga.eus.

Esleipenduna behartuta dago zerbitzuari lotuta dauden ondasun eta instalazioak egoera onean mantentzera. Horretarako, instalazio eta ekipamenduen kontserbazio eta mantetze programak ezarriko ditu, aurreikusitako lanen maiztasunak eta datak jasoz.

Erabileraren poderioz matxuratu edo puskatzen den makinariaren (etxetresna elektrikoak kasu) konponketa edota aldaketa udalak hartuko du bere gain. Bestetik, Udalari jakinarazi beharko dio aterpearen inguruan egon litezken txukuntze eta konpontze premien berri.

Esleipendunak instalazioen hobekuntzen proposamena egingo du eskainitako zerbitzuak hobetzeko badira.

el inventario realizado para la anterior licitación el 14 de junio de 2021).

Las licitantes podrán ver las instalaciones. La solicitud para ello deberá formularse ante el Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento, en el plazo de cinco (5) días desde la publicación de la licitación, en las siguientes direcciones electrónicas:
ingurugiro@astigarraga.eus;
hirigintza@astigarraga.eus.

La persona adjudicataria estará obligada a conservar en buen estado los bienes y las instalaciones afectadas al servicio Para ello establecerá programas específicos de conservación y de mantenimiento de las instalaciones y sus equipamientos donde se recojan las periodicidades y fechas previstas para los trabajos preventivos.

El arreglo de la maquinaria averiada o estropeada debido al uso (como electrodomésticos) correrá a cargo del Ayuntamiento. Por otra parte, deberá poner en conocimiento del Ayuntamiento las necesidades de reparación y acondicionamiento que pudieran surgir en relación al albergue.

La empresa adjudicataria propondrá mejoras en las instalaciones siempre que el objeto de las mismas sea el de mejorar los servicios que se ofrecen.

F) KUDEAKETA EKONOMIKOA

Esleipendunaren gastuak izango dira zerbitzuaren prestaziotik eratortzen direnak, esate baterako eta mugatu gabe: natur eskolaren hezkuntza-materiala, garbiketa-lanak eta garbiketa-produktuak, mantentze-lanak (ohiko matxurak konpontzea), erosketak, publizitatea eta beste gastu arruntak, langileria gastuak eta enpresa

F) GESTIÓN ECONÓMICA

Serán gastos de la empresa adjudicataria los que se originen de la prestación de servicio, a título enunciativo y no limitativo: material educativo de la natur eskola, limpieza y productos de limpieza, mantenimiento (reparación de averías ordinarias), compras, publicidad y otros gastos corrientes, los gastos de personal y los

beraren kudeaketatik eratorritakoak.

derivados de la gestión de la empresa propiamente dicha.

G) HONDAKINEN KUDEAKETA

Aterpean bertan hondakinen kudeaketa arduratsua izateko neurriak eta bideak jarri beharko ditu esleipendunak, horretarako kudeaketa eredu zehatzak proposatuz. Bestetik, aterpearen inguru hurbileko hondakinen kudeaketa egiteko elkarlana bideratu beharko du Udalarekin batera.

G) GESTIÓN DE RESIDUOS

La empresa adjudicataria dispondrá en el albergue de medios y adoptará las medidas para llevar a cabo una gestión responsable de los residuos, y propondrá modelos de gestión destinados a ese fin. Por otra parte, deberá colaborar con el Ayuntamiento para llevar a cabo la gestión de los residuos del entorno cercano al albergue.

H) ELIKADURA ETA KONTSUMOA

Bertaratutakoei eskainiko zaizkien elikagaiak osasuntsuak eta bertakoak izan beharko dute, ekologikoak izatea lehenetsiko delarik.

Gainera, hezkuntza mailan elikadura osasuntsuaren inguruko programa zehatzak landuko dira.

H) ALIMENTACIÓN Y CONSUMO

Los productos alimenticios que vayan a ofrecerse a los visitantes deberán ser saludables y del país, y se priorizarán los ecológicos.

Además, a nivel educativo, se desarrollarán programas específicos sobre alimentación saludable.

4.- EGUTEGIA, ORDUTEGIA ETA ERRESERBAK

Aterpearen zerbitzua urte osoan eskeiniko da.

Natur Eskola ikasturtean zehar eskainiko da eta jardueraren %50 inguru zerbitzu horri eskaini behar zaio. Erabiltzaileei aukera ezberdinetako egonaldiak eskainiko zaizkie, bai egun pasakoak, bai egun bat baino gehiagokoak.

Aterpearen alogera berriz, urte osoan zehar eskainiko da, astegun nahiz asteburuetan.

Eskainitako zerbitzuen sustapen eta

4.- CALENDARIO, HORARIO Y RESERVAS

El servicio de albergue se ofrecerá durante todo el año.

El servicio de Natur Eskola se ofrecerá durante el curso escolar, y el 50 % de la actividad se destinará a dicho servicio. Se ofertará a los y las usuarios y usuarias diversas opciones de estancia, pudiendo tener esta una duración de un día o superior.

En cambio, el alquiler del albergue se mantendrá durante todo el año, tanto durante la semana como los fines de semana.

Ofrecerá distintos medios para informar

informaziorako bitarteko anitzak eskainiko ditu: telefonoa, internet, udal web-a eta aurrez aurrekoa.

y promocionar sus servicios: teléfono, Internet, web municipal y contactos presenciales.

Aterpearen alogera ezingo da urte batetik besterakoa izan. Alogera eskaera gehienez lau hilabete aurretik egin ahal izango da. Eskaera bat baino gehiago badaude, zozketa bidez esleituko da.

El albergue no se podrá alquilar de un año para otro. Cómo máximo se podrá realizar la reserva con cuatro meses de antelación. En caso de que haya más de una persona interesada la adjudicación se realizará por sorteo.

Udalak esleipendunaren esku jarriko du SIMa duen telefono mugikor bat, erreserbei erantzun ahal izateko.

El ayuntamiento pondrá a disposición del adjudicatario un teléfono móvil con SIM para poder atender las reservas.

5.- PERTSONALA

5.- PERSONAL

Enpresa esleipendunak zerbitzu egokia eskaintzeko behar adina pertsona kontratatzeko ardura izango du. Natur eskolako hezitzaile gisa arituko direnak gutxienez graduatuak izan behar dute eta egin beharreko lanarekin zerikusia duen formazioa (pedagogia, ingurumena, nekazaritza, bioeraikuntza, elikadura, hezkuntza, artea edo aisialdiaren ingurukoa) edo lan eskarmentua (enpresa publikoan edo pribatuan) dutela frogatu beharko da.

La empresa adjudicataria tiene la responsabilidad de contratar a cuantas personas sean necesarias para ofrecer un buen servicio. Las personas que vayan a trabajar como personal educador de la Natur Eskola, deberán ser al menos graduados en estudios relacionados con el trabajo que vayan a llevar a cabo (pedagogía, medio ambiente, agricultura, bioconstrucción, alimentación, educación, arte o estudios relacionados con el ocio), o deberán demostrar que cuentan con la experiencia suficiente en dichos trabajos (empresa públicas y privadas).

Hezitzaileek edo administrazio lanetan arituko diren langileek C1C1 euskararen ezagupen maila izan beharko dute eta eskulan zereginetan arituko den pertsonalak (garbitzea, sukaldean, etxezaintza, etab.) B2 maila.

Tanto las y los educadoras y educadores como las y los trabajadoras y trabajadores que se ocupen de labores administrativas deberán contar con el título C1C1 de conocimiento del euskera, y el personal que vaya a trabajar en otros ámbitos (limpieza, cocina, vigilancia, etc.) el nivel B2.

Gainera, hezitzaileek ez dira egon behar sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta.

Además, los y las educadoras no deben estar inscritos en el Registro Central de delincuentes sexuales.

Enpresak guztiaren froga-agiriak aurkeztu beharko ditu Udaletxean

Previamente a la adjudicación, la empresa deberá presentar en el

esleipena gauzatu aurretik.

Baldintza berak bete beharko dituzte langile berriek eta ordezko-pertsonalak.

Ayuntamiento todos los documentos acreditativos que se exijan.

La nueva plantilla y el personal que realice las labores de suplencia tendrán que cumplir con las mismas condiciones.

6.- HIZKUNTZAREN ERABILERA

Esleipenaren xede den zerbitzua eskaintzerakoan, Udaleko Osoko Bilkurak onartutako hizkuntz erabilerarako irizpideak beteko dira eta horien arabera euskararen erabilera lehenetsiko da, bai ahoz bai idatziz, eta eskola-umeentzako material didaktikoa euskaraz sortuko da.

Kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak…) Udalarekin euskaraz egin behar dira.

6.- USO DEL LENGUAJE

A la hora de ofrecer el servicio objeto de la adjudicación, se cumplirán los criterios para el uso del lenguaje aprobados por el Pleno de la Corporación, y según esos criterios se priorizará el uso del euskera tanto a nivel oral como escrito, y el material educativo que se vaya a crear dirigido a las y los escolares estará redactado en euskera.

Todo tipo de comunicación oral o escrita con el Ayuntamiento, que surja a través de este tipo de contrato (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, etc.) debe realizarse en euskera.

7.- BERDINTASUNA

Emakume eta gizonen arteko aukera eta eskubide berdintasuna bermatu eta lantzeko helburua kontuan hartuta landuko da eskaintza, programazioa eta zerbitzuak ematerakoan; eztabaida eta erabakiak hartzeko uneetan nesken parte hartze aktiboa sustatuko da; eremua banatzerakoan neska nahiz mutilen interesak hartuko dira kontutan; irudietan neska zein mutilen irudiak erabiliko dira; sexista ez den hizkera erabiliko da; etab.

7.- IGUALDAD

La oferta, la programación y la prestación del servicio tendrán el objetivo de garantizar y trabajar la igualdad de oportunidades y derechos entre mujeres y hombres: en las tomas de decisiones y en los debates, se impulsará la participación activa de las chicas; a la hora de repartir el espacio, se tendrán en cuenta los intereses de ambos sexos; se utilizarán imágenes tanto de chicos como de chicas; se utilizará un lenguaje no sexista; etc.

8.- INKLUSIBITATEA

Erabiltzaileen aniztasuna kontutan izango da (adina, sexua, jatorria,

8.- INCLUSIVIDAD

Se tendrá en cuenta la pluralidad de las usuarias (edad, sexo, origen, ideología,

ideologia, gaitasuna, etab.) eta tratu eta aukera berdintasuna bermatuko da. Norbanako guztiak barnean sartzea eta elkarri eragitea sustatuko da, elkarrekin bizitzen ikastea eta gozatzea bultzatuz.

capacidad, etc.) y se garantizará la igualdad de oportunidades y la igualdad en el trato. Se fomentará la integración de todos los individuos y se impulsará el aprendizaje y disfrute de la convivencia.

9.- INGURUMEN IRIZPIDEAK

Entregatutako materialek (txostenak, etab.) ingurumen-irizpideren bat jarraitu beharko dute (paper/plastiko birziklatua, plastiko biodegradagarria, FSC edo PEFC papera edo zura, etab.).

9.- CRITERIOS AMBIENTALES

Los materiales entregados (informes, etc.) deberán seguir algún criterio ambiental (papel/plástico reciclado, plástico biodegradable, papel o madera FSC o PEFC, etc.).

10,- HAURRAK ETA NERABEAK INDARKERIATIK BEGIRATZEKO BABES INTEGRALA

Esleipenduna behartuta dago Haurrak eta nerabeak indarkeriatik begiratzeko babes integralaren 8/2021 Legea betetzera, eta arlo horretan udalak ematen dizkion jarraibideak betetzera, besteak beste, udal plana jarraitzea, protokoloa egitea eta aurkeztea udalean...

10.- PROTECCIÓN INTEGRAL A LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA FRENTE A LA VIOLENCIA.

La adjudicataria está obligada al cumplimiento de la Ley 8/2021 de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, y a cumplir las directrices municipales en esta materia, entre ellas, seguir el plan municipal, elaborar un protocolo y presentarlo en el Ayuntamiento…

11.-KOORDINAZIOA ETA ZERBITZUAREN JARRAIPENA

Udalak ahalmena izango du esleipendunak aterpean eskainitako zerbitzuak zuzenean ikuskatzeko, esleipendunaren betebeharrak egiaztatu eta instalazioen erabilera eta egoera zein den ezagutzeko.

Enpresak bere aldetik, gutxienez urtean behin txosten idatzia aurkeztuko dio Udalari datu hauekin: okupazio-datuak, zerbitzuen erabilera, eta funtzionamenduarekin izandako gorabeheren berri eta aldaketa eta hobekuntza-proposamenak.

11.- COORDINACIÓN Y SEGUIMIENTO DEL SERVICIO

El Ayuntamiento tendrá la facultad de supervisar directamente los servicios ofertados por la empresa adjudicataria en el albergue, de verificar las obligaciones de la empresa adjudicataria y de conocer el uso que se da a las instalaciones, así como las condiciones de las mismas.

La empresa adjudicataria, por su parte, presentará al Ayuntamiento al menos una vez al año un informe escrito con los siguientes datos: datos de ocupación, el uso de los servicios y los incidentes producidos durante su funcionamiento, además de proponer

Horretaz gain, ikasturteko kontu orokorrak justifikatu beharko ditu, agiri hauen bidez: egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria, eta kontratatutako langileen lan-kontratua eta TC agiriak.

diversos cambios para su mejora.

Además del citado informe, la empresa adjudicataria deberá presentar las cuentas generales a través de los siguientes documentos: balance de situación, cuentas y memoria de pérdidas y ganancias y los contratos y TCs de las personas contratadas.